

HERNIO ETA PAGOETA KO NATURA PARKEA




MIKEL
ARRIZABALAGA

EUSKAL HERRIA

sua
EDIZIOAK

AURKIBIDEA



HITZAURREA.....	10
HERNIO	14
Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE)	16
Geologia eta erliebea.....	16
Fauna eta landaretza	18
Ondare historikoa	19
1. Gautxori eta Gurutzeen bidea (PR-Gi 78).....	24
2. Gazume eta Hernio	30
3. Lizarbakarra	36
4. Albizturko bideak (PR-Gi 81)	41
5. Galtzadako bidea (SL-Gi 13).....	45
6. Askantxoko Saguzarren bidea (SL-Gi 9).....	48
7. Aginaga (SL-Gi 6)	52
8. Ibarbi Sagarraren ibilbidea (SL-Gi 48).....	57
9. Olazar (Ibeltz) (SL-Gi 45).....	62
10. Larraulgo gainak.....	66
11. Erdoizta auzoa.....	70
12. Osintzulo.....	74
13. Muskerraren bideak	78
14. Kutsidazu bidea, Ixabel	82
15. Lera-bidea	87
16. Lizardiren bide kuttunak.....	92
17. Urraki, Beleku eta Illaun.....	95
PAGOETAKO NATURA PARKEA	100
Natura parkea	102
Geologia, erliebea eta klima.....	103
Fauna eta landaretza	104
Ondare historikoa.....	105
18. Pagoetari bira (PR-Gi 4001).....	108
19. Pagoetako gurutzea (PR-Gi 4002)	114
20. Agorregi: burdina eta ura (SL-Gi 4001)	118
21. Faunaren ibilbidea (SL-Gi 4002).....	124
22. Pagoetako hagina (SL-Gi 4003).....	128
23. Pagoetako tontorrak	132
24. Altzolaratseko harana	137
25. Granadaerreak.....	141
26. Indamendi eta Txatxarromendi	146
27. Aizarnako lurretan (PR-Gi 40)	150
HERNIO-PAGOETA ZEHARKALDIAK	154
28. Altxonbidea (GR 35 E01).....	156
29. Gailurrez gailur.....	161
INFORMAZIO PRAKTIKOA	169



Urruztumeke punta.

HITZAURREA

Euskal Herria Liburuak bildumaren ale hone-tan, Euskal Herriko ospe handiko bi ingurune berezi ezagutzeko aukera izango dugu: Hernio-Gazume mendigunea eta honen iparralderanzko azken mendi-adarra den Pagoetako natura parkea. Biek ala biek, gertu egon arren, oso orografia desberdina erakusten dute, bakoitzak bere balio ekologiko eta kultural garrantzitsuekin.

Tolosaldea eta Urola Kosta arteko mendigune honen edertasun naturalak koadro batek eduki ditzakeen ezaugarri kromatiko gehienak erakusten ditu. Tontor garaienetako ingurune karstiko grisetik Kantauri itsasoko urdineraino irristatzen dira kolore berdeko baso eta larreak nahas-mahas. Eta horien mihise paregabea, herri eta baserrien zuri eta gorriek *collagea* osatzen dute oreka perfektu eta harmoniatsuan.

Sasoia ren arabera, jantzia aldatu eta bestelako kolorez apaintzen dira parajeak. Uda joan eta udazkena heltzen denean, naturak koloreen dantza eta trukea ahalbidetzen du. Tonu marroi, laranja, okre eta horiak nagusitzen dira koloreen ortzadar ederra margotuz. Gailurretako harkaitzen grisak elurraren zuriak estaltzen ditu negu gordinean, zuhaitzak biluztu eta udaberriaren zain lozorroan geratzen diren bitartean. Eta mendeetan zehar,

paisaia aldakor honetara egokituz joan da gizakia, batzuetan bertako lurretan finkatuz, eta, beste batzuetan, berriz, mendiguneko igarobideak erabiliz.

Margolan honen azal eta erraietan bilatuko ditugu gure arbasoek utzitako arrastoen lekuko garrantzitsuak. Mendigunean topatuko ditugun haitzulo, trikuharri eta tumuluek historiaurrean hemen bizi izan zirenen berri emango digute. Haran estu eta laiotzetan ibiltzean, erreketako ur

bizkorren indarra erabiltzen zituzten burdinolak eta errotak baso trinkoetan txertaturik agertuko zaizkigu. Herrigune eta auzoak zeharkatzean, landa-arkitektura tradizionalarekin lotutako eraikin ederrez gain, ermitak, elizak eta santutxoak bisitatu ahal izango ditugu, erlijioak inguru hauetan izan zuen garrantziaren lekuko.

Natura, gizakia, eta horien arteko harremanetatik sortutako kulturaren erakusleio paregabe honetan, 29 ibilaldi proposatu ditugu. Horietan guztietan, herri eta paraje hauetako ondare historiko eta naturala ezagutzeko aukerak eskaintzeaz gain, leku, eraikin, herri, tradizio, pertsonaia, museo, usadio, bizimodu, elezahar eta literaturarekin loturiko informazio zabalagoa eta zehatzagoa eman dugu.

Biak ezagutzera gonbidatzen zaituztegu, beti ere naturarekiko erakutsi beharreko begirunez, oreka ekologikoa aldatu gabe eta guztion ondasun diren paisaia hauek zainduz eta gaurdaino izan duten edertasun eta xarmaz gozatuz.

Kontraste handiz beteriko parajeak, hamaika sententziaz gozatzeko inguru paregabeak.

IBILBIDEEN EZAUGARRI OROKORRAK

Euskal Herria bildumako ale honetan, Hernio eta Pagoetako natura parkean oinez egiteko zenbait ibilbide proposatu ditugu. Ibilaldi hauetan, menditontor eta ingurune ezagunenak islatzen saiatu naiz, kasu askotan bide balizatuak erabiliz. Modu honetan, harkaitz handi, baso trinko, estazio megalitiko, burdinolen hondakin, aspaldiko labe, haitzulo, errota, elur-zulo eta abar ezagutzeko parada izango dugu. Eta, hauekin batera, gure literaturarekin lotura duten hiru ibilbide erantsi ditut. Ibilaldi gehienak, osorik edo zati batean, zirkuluan egin daitezke eta horrela, ibilaldiari probetxurik handiena ateratzeko beta izango dugu. Ibilaldiak

konbinatzeko aukera ere badago, horietan burutu beharreko distantzia eta denbora luzatuz.

Ibilaldi guztiak urteko edozein garaitan egin daitezke, ez baitute zailtasun edota arrisku berezirik, beti ere mendiari zor zaion errespetutik. Erne ibili beharra dago laino egunetan, batik bat Hernioko gandorrean ibiltzean edota Pagoetako basoetan murgiltzen garenean. Ez da segurtatze neurri berezirik behar, nahiz eta gandorreko zenbait tartetan zailtasun txikiko igoerak eta jaitsierak egon, gehienetan saihestu daitezkeenak. Bidearen zailtasuna, ibilbidearen luzerak eta gainditu beharreko desnibelak erakusten du. Ibilbide bakoitzean erabilitako denbora eta distantzia orientagarriak dira, horiek mendizale bakoitzak mendia ulertzeko moduaren arabera baitira. Batzuek ibilbidea ahalik eta denbora gutxienean egitea dute helburu; beste batzuek, aldiz, naturarekin ahalik eta harremanik zuzenena eduki nahi dute begien aitzinean sortzen den guztiaz gozatuz.

Sarbideak asfaltatutako errepidetatik egingo ditugu. Bidezidor zaharrak ezabatu dituzten basopistak ere ugariak dira, orain arte izandako oreka arriskuan jarritz, baita deshomologatu diren bideak ere. Hala ere, proposatutako ibilbideak nagusiki balizatuak bidezidor eta bideetatik burutu daitezke, beti ere pista eta bide asfaltatuak ahalik eta gehien saihestuz.

Gailurretara igoko gara, haran hestu eta misteriotsuak zeharkatuko ditugu, baso trinkoetan murgilduko gara, ekosistemen aniztasunez gozatuko dugu, elezaharrak gogoratuko ditugu, antzina gure arbasoek erabili ohi zituzten bide zaharren barrena ibiliko gara, festa eta erromerien doinu dantza egingo dugu, sinesmenen mundua deskubrituko dugu eta herrien eguneroko bizitza ezagutuko dugu, hitz gutxitan esateko, natura, gizakia eta kulturaren artean zubiak eraikiz, inguru natural eder eta erakarriaz gozatzeko aukera ezin hobea izango dugu.

Inguru hauetaz gozatu, baina beti ere naturari zor zaion errespetutik!



Alkiza elurretan.

HERNIO



KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUA (KBE)

1997an, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak Hernio-Gazume mendigunea, landaretza eta fauna-espezie batzuentzat oso habitata egokia zela eta, Natura 2000 sarean sartzeko zerrendan jartzea erabaki zuten.

2004an, Europako Batzordeak Hernio-Gazume mendigunea Batasunaren Garrantzizko Leku (BGL) izendatu zuten.

2012an, urriaren 12ko dekretuaren bidez, Eusko Jaurlaritzak Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) izendatu zuen, gaur egun duen babes-egoera alegia. Hala, Hernio-Gazume mendigunea Batasunaren Garrantzizko Leku (BGL) izatetik Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izatera pasa zen.

Eremu babestuak, 2.158 hektareako azalera dauka eta kareharrizko erliebe karstikodun mendigunea izanik, balio handiko paisaia multzoak ditu (kareharrizko gailurrak, harkaiztietako kobak eta zuloak, magaletako pagadi eta hariztiak...). Paisaia horren barruan, mehatxatutako fauna bizi da; hildako egurretako intsektu

Gazumeko buzoia.



deskonposatzaileak (saproxilikoak), saguzarrak (kiropteroak) eta saiak, esate baterako. Eremu babestua bederlatzi udalerriko lurretan zabalitzen da: Aia, Albiztur, Alkiza, Asteasu, Bidania-Goiatz, Errezil, Hernialde, Larraul eta Tolosa.

GEOLOGIA ETA ERLIEBEA

Hernio mendigunea Gipuzkoako erdigune geografikoan dago. Mendebaldetik eta ekialdetik, Urola eta Oria ibaien behe-ibilguen artean zabalitzen da, kostaldetik oso gertu. Iparraldetik, Andatza mendigunea, Pagoetako gailur-lerroa eta Aizarna harana menderatzen duten tontorrrak barne hartzen ditu. Hegoaldetik, berriz, mendilerro nagusia eta Urraki tontorreraino hedatzen den mendi-adarra ditugu.

Hernio mendiguneko erliebea sakonera txikiko itsas plataformako kareharri mikritiko ur-gondarrez osatuta dago (kretazeoak dira), eta errudista eta koral fosil ugari ditu. Hernioko gailurreria sinklinal eseki baten aztarnei dagokie; sinklinala Tolosa-Arno antiklinorioaren parte da, hau da, eskualde mailako egitura geologiko baten parte. Haren txangak ipar-mendebaldetik hego-ekialderako norabidea du, gutxi gorabehera. Sinklinal esekia alderantzizko erliebe mota bat da.

Mendigunean, gainazaleko sakonune tipikoak dituzten formazio karstiko ugari daude, hala nola dolinak, ubalak edo poljeak. Egitura karstikoaren ondorioz, eta euri asko egin ezean, mendilerroko erreka askoren ibilgua lehor egoten da, ura lurraspitik doa eta.

Mendiguneak malda handiak ditu, itsas mailatik mila metroko altuerara arte, mendigunearen benetako ardatzaren gainean lerrokatutako sei kotatan: Gazume (1.002 m), Portumatza (1.049 m), Hernio (1.078 m), Aizpel (1.068 m), Ubeltz (1.016 m) eta Herniozabal (1.011 m). Gailurreriako ton-



Murgilgo gurutzea.

tor horiez gain, bada nabarmendu beharreko mendi gehiago. Hegoaldean, Albiztur, Beizama eta Bidania-Goiatz herrien gainean, Mendikute, Iruntxur, Illaun eta Urrakiko tontorrek ditugu. Azpeitia aldera, berriz, Arroite edo Arauntza eta Sañoako gailurrak. Aizarnako (Zestoa) haranaren gainean, Ertxiña eta Santa Engraziako tontorrek ditugu. Iparralderantz, Aduna, Lasarte-Oria, Zubieta eta Usurbil aldera, Zarateaitz, Andatza eta Belkoango tontorrek dira nagusienak. Iparmendebalderantz, azkenik, Pagoetako mendiak eta Indamendi nabarmentzen dira.

FAUNA ETA LANDARETZA

Kareharrizko erliebe karstikodun Hernioko mendiguneak balio handiko paisaiak ditu. Barrunbeak, harkaiztiak, haitzuloak, lapiazak eta lur azpiko urak dira protagonistak. Paisaia berezi hau baso eta larreek osatzen dute.

Paisaia horietan mehatxatutako fauna espezieak bizi dira: hildako egurrean bizi diren intsektu deskonposatzaileak, kiropteroak (saguzarrak) eta hegazti sarraskijaleak (sai arrea eta sai zuria).

Gibel-belarra (*Hepatica nobilis*).



Arrabio arrunta (*Salamandra salamandra*).

Harkaiztia hegazti sarraskijaleen habitata da. Aipagarria da espezie asko Europa zein Euskal Herriko katalogoetan jasota daudela, hala nola: sai arrea (*Gyps fulvus*), sai zuria (*Neophron percnopterus*), mendi tuntuna (*Prunella collaris*), belatz gorria (*Falco tinnunculus*) edo belatzingak (*Pyrhonorax sp.*). Halaber, eremu horretan zenbait hegaztiren biziraupena eta ugalketa ere bermatzen da (sai arrea eta sai zuria, besteak beste). Horretarako habia egiten duten tokiak babesten dira eta elikatzeko eremua zaintzen da (larreak eta sastrakak).

Hainbat saguzar espeziek Hernioko haitzulo ugariak erabiltzen ditu atseden eta babes bila. Kontserbazio Bereziko Eremuan hamahiru espezie ezagutzen dira, horietako sei EAEn kaltebera gisa edo galzorian katalogaturik daudenak.

Horrez gain, beste espezie espezializatu, bitxi eta endemikoen babeslekua ere badira. Intsektuen artean, egurraren deskonposizioa eragiten duten sproxilikoak (hainbat kakalardo mota eta barraskilo-espezie bat) dira bereziki aipagarriak.

Landaretzari dagokionez, baso hosto-erorkorrek dira zabalenak. Basoen artean pagadiak dira nagusi, eta azidofiloak dira azpimarratzeak. Balio ekologiko handiko baso helduen eta pago-motz unadak ere agertzen dira. Beraz, esan daiteke, garai batean izan zen egurraren ustiake-



Pago enborrak udazkenean.

taren ondorioz (ikazkintza), pagadiak nahikoa gazteak direla.

Baso kaduzifolioez gain, badira espezie exotikoz landatutako lur sailak, intsinis pinuez eta alertzez batik bat. Hauekin batera, abeltzaintzarako larrez eta sastrakez osatutako zabalgunek handiak daude. Laborantza-lurrak ez dira garrantzitsuak, baina haranetan zehar belardiak eta sega-larreak hedatzen dira, lurraldearen heren bat baino gehiago hartu arte. Hernioko paisaia-mosaikoan, espazio urbanizatua ez da oso nabarmena.

ONDARE HISTORIKOA

Luze joko genuke Hernioko mendiguneak bere luze-zabalean hartzen dituen herri eta auzo guztietako ondare historikoa azaltzen, eta, horregatik, Hernio-Gazume KBEarekin muga egi-

ten duten herrien ondare historikoa jaso dugu bakarrik: Albiztur, Bidania-Goiatz, Errezil, As-teasu, Larraul, Alkiza, Hernialde, Tolosa eta Aia.

Albizturrek badu bere ondare historikoa eta monumentala, herrian bertan eta bere lurretan. Burdin Aroko Iruntxurreko kastroa eta Erdi Aroko Mendikuteko gaztelua dira zaharrene-takoak. Antzinako eliza baten hondarren gainean, Lucas Longakoa maisuak XVII. mendean eraiki zuen Andre Mariaren Jasokundearen eliza barrokoarekin batera, herriaren sarreran, XVI. mendean bukaerako San Gregorio ermita dago, eta, Albizturko Santa Marina auzoan, itxura erromanikoko Argisaingo Santa Marina elizak osatzen du udalerraren ondare erlijiosoa. Ondare zibilean, berriz, Ospitale Zaharraren beste aldean, 1863an eraikitako garbitokiarekin batera, nabarmentzekoak dira herrian bertan aurkituko ditugun lau iturriak. Haranean barreiatu-rik ba-



Errezilgo gurutze-bidea.

serri ederrak ikus ditzakegu, armarridunak, Erdi Aroko kutsua dutenak edota elementu bitxiak gordetzen dituztenak. Oria, Errekalde, Arretxe, Urretaundi eta Urrutume baserriak dira horietako batzuk, azken honek kultura ondasun gisa, monumentu izendapena du.

Bidania-Goiatz udalerrinari dagokionez, Bidanian, San Bartolome eliza, bertako harginen lanaren erakusgarri, eta bigarren solairua adreiluz egina dagoen udaletxea nabarmendu

behar dira. San Pedro eta Santa Ageda ermitekin batera, badira ere jauregiak, Mojaetxea, Palazio Ana eta Lizasoain edo Iriarteren eraikin noblea esate baterako. Goiatzen, berriz, Andre Maria Jasokundearen elizaz gain, Erdi Aroko Apaizetxea edo Goiatzeko dorrea nabarmentzen dira. Herriko sarreran bi zubi badira: Tolosa aldetik, 1923. urtean eraikitako Aizkomitako zubia, eta Errezil aldetik, berriz, 1890. urtean altxatutako Trintxerako zubia.

Errezilgo eraikin erlijiosoak deigarriak dira oso, batez ere kopuruagatik. Zallurroako San Martingo parrokia-elizarekin batera, zazpi dira Errezilgo ermitak, herriko bide garrantzitsuen ondoan. Herrigunetik gertu, haranean behera, Gurutze Santua eta San Antonio ermita ditugu, azken hau harrizko gurutzez egindako gurutze-bide baten ondoan. Haraneko zonalde lauenera hurbilduta, San Migel Bekoa landa-ermita ikus daiteke eta, gertu, San Esteban ermita dago. Letea bailaran, herritik oso gertu, San Jose Santutxoa dago eta, urrutiago, berriz, San Migel Goikoa ermita. Bi dira, herrigunetik urrun baina udalerriko mugetatik irten gabe, ermita ikusgarriak: Erdoiztako San Isidro eta Iturriozko San Joan, biak ala biak oso bereziak eta ezagunak.

Errezilgo haranaren beheko eremuan, lanerako uraren indarra aprobetxatzen zuten eraikinak daude: errotak eta burdinolak. Horietako batzuk egoera kaxkarrean daude gaur egun. Landa-arkitektura tradizionalarekin lotutako eraikin interesgarriak ere badaude. Herrigunean Etxeberri, Apaizetxea, Kantoia, Borondegí eta Etxeandia dira aipagarrienak. Azken bi hauek armari bana dute fatxadan, harrizkoa eta zurzkoa hurrenez hurren. Udalerraren gainerako zatian, ia 400 baserrien artean askok interes historikoa dute, baina bat aipatzekotan, Ibarbia auzoko Galarragoena nabarmendu behar dugu. Erdi Aroko arku zorrotza dauka.

Asteasuk ondare erlijioso aberatsa du. San Pedro elizaz gain, zeinak portada erromanikoa eta erretaula barrokoa dituen, Elizmendiko Santa Kruz ermita dugu. Herritik urrutiago, Andatzarraterako bidean, Santa Marina (Santamaña) ermita eraikuntza tenplarioa dago. Arkitektura zibilean, berriz, 1760an eraikitako udaletxea dugu. Bere aurreko fatxadan hiru arku eta bi balkoi handi ditu. Asteasuko baserrien artean, badira herri-arkitektura tradizionalaren eredu ederrak ere.

Larraulgo San Esteban eliza da herriko eraikin zaharrena, eta bertan ikus daitekeen XVI. mendeko grisaillea Gipuzkoan mende horretako bakarra dela azpimarratu behar da. Grisaillea margotzeko kolore grisak soilik erabiltzen dituen teknika da eta, askotan, irudiari eskulturak duen itxura ematen dio. Elizaz gain, Erdi Aroko Sorarrain baserria nabarmendu behar da. 2007an, Eusko Jaurlaritzak kultura ondasun izendatu zuen, Monumentu sailkapenarekin.

Alkiza. Hiru dira Alkizako herriguneko monumentuak: XVI. mendeko San Martin eliza gotikoa, barne egiturari Erdi Aroko hainbat elementu dituen Alkizalete baserriaren eraikin barrokoa eta Santiago ermita, 1528an lehen aldiz aipatua, zeinak hilerriarekin batera multzoa osatzen duen. Aipatzekoak dira ere, Alkizako hainbat ondasun etnografiko, hala nola, Berandoain, Basazabal, Zumitza eta Intxarraundiagako karobiak, Altzor-

Aginaga baserriko armarría eta eguzki-erloju.



beko eta Etxabeguren Berriko iturri-latsarriak, Ilunbeko, Askantxoko eta Lakapideko galtzadak edo lera-bideak, besteak beste.

Arkitektura tradizionalako etxe eta baserri asko daude herrian. Lehen aipatutako Alkizalete baserriaz gain, beste bik merezi dute aipamena eta azpimarra: Aginaga eta Zumitza. Aginaga Alkizako oinetxe garrantzitsuenetako bat da. XVI. mendeko eraikinaren berezitasunen artean, armarri bikaina eta bi eguzki-erloju nabarmentzen dira. Zumitza baserria, XVI. mendeko dokumentuetan agertzen dena, bere harrizko eraikuntzogatik Gipuzkoako Etxe Patrimonioaren zerrendan ondare artistiko gisa agertzen da. Bere fatxadan arrano baten irudia duen armarria eta, aurreko fatxadaren goiko aldean, giza-irudia ageri dira.

Hernaldeko elizak Jasokundeko Andre Maria du izena. Nabe bakarreko eraikuntza da, abside poligonalekoa. Arkupe batek babesturiko ate barroko batean zehar egiten da sarrera. Dorre karratua du, kanpai eta guzti. Arkitektura zibilean herriko zenbait baserrik atentzioa ematen du: Olatzaga baserria lurraldeko zaharrenetariko bat da. Anotzaga armarridunak fatxadan arku karpanela eta beste zenbait ezaugarri ditu. Urdanbilelus ere nabarmendu behar da. Muñoandieta eta Agerre baserrien artean, Aizkoateko haitzuloa dago. Bere bioaniztasun eta endemismoek egin dute berezi, baita 1917an aurkitu zuten leundutako aizkorak ere.

Tolosa. Historikoki herriak izan duen garrantziagatik, asko dira bere ondasun historikoko eraikinak. Bakoitzari buruz azalpenak emanez gero, luze joko genuke, beraz eraikin horiek bere izaeraren arabera multzokatu eta aipatuko ditugu segidan.

Eraikin erlijioso ugari ditu Tolosak bere auzoetan sakabanaturik: estilo neoklasikoko San Joan kapera (1850) Arramele auzoan, XVII. mendeko San Frantzisko eliza eta komentua, klaratar mojen XVIII mendeko zenobio barrokoa den Santa



San Esteban elizako arkupea.

Klara eliza eta komentua, San Migel eliza Aldaba auzoan, San Blas ermita izen bereko auzoan, Pizkunde garaiko Santa Maria eliza eta Corpus Christi eliza.

Jauregi eta eraikin publikoen zerrenda ere luzea da: Aldundiaren jauregia (XIX. mendea), Aranburu (XVII. mendea), Atodo (XVI. mendea), Idiakez (XVII. mendea) eta Iturriza jauregiak (XVI. mendea), Justizia jauregia edo Topic (XIX. mendea), Lapaza Etxea (XIX. mendea), Kultur Etxea (XIX. mendea), Gipuzkoako Artxibo Orokorra (XX. mendea) eta Tolosako udaletxea (XVII. mendea).

Beste batzuk: Andia dorrea, antzina dorretxea izana. Gaztelako atea, Erdi Aroaz geroztik harresian Tolosatik Gaztela aldera joateko atea zegoen leku berean. Naparzubia, Erdi Arotik Tolosatik Nafarrora joateko edota etortzeko erabili izan den zubia. Santa Maria elizaren alboan dagoen XIV. mendeko errota. Plaza Berria (XVIII. mendea), Berdura plaza (XIX. mendea) eta Zerkausia merkatua (XIX.-XX. mendeak).

Aia. Liburu honen bigarren atalean, Pagoetako natura parkearen aurkezpenean, Aiako auzo eta lurretako ondare historikoaren berri zehatza ematen da.

Paraje hauetako lehen giza aztarnak Bronztze Arokoak dira, eta horren adibide dira Olatzazpiko haitzuloan ia osorik aurkitutako zeramikazko piezak eta Itxuregiko tumulua, biak Alkizako lurretan. Zopite eta Belako haitzetan bost kobazulo topatu dituzte, eta ikertzailen azterketetan ikusi dute haitzulo horietan Bronztze Aroko eta erromatar garaiko aldizkako okupazioen aztarna arruntak daudela. Otagain, Zaingo Ordeka eta Zaingo Bizkarreko trikuharririkin batera, Belanburu, Munain eta Itxuraingo tumuluek osatzen dute Hernio-Gazumeko estazio megalitikoa.

Larraulgo erretoretxea.



1 Gautxori eta Gurutzeen bidea (PR-Gi 78)

Ibilbide honek pago, haritz eta urki artean Hernioko tontorreraino eramango gaitu, eta, ikuspegi zabalaz gozatu ostean, iraileko igande guztietan tradizioa eta festa uztartzen diren Zelatungo bordetara jaitsiko gara. Herritar eta mendizale askoren topaleku horretatik antzinako bideetan barna itzuliko gara Alkizara.

Alkizako San Martin elizaren ondotik abiatu eta berehala, Alkizako mendi ibilbideen informazioa ematen duen egurrezko argibide-taularen ondora ailegatuko gara. Maldan behera egin eta Lete (edo Alkizalete) baserri ederraren ondora iritsiko gara (329 m, 3 min). Gaur egungo baserria XVIII. mendeko eraikin barrokoa da, baina bere kanpo zein barne egituran Erdi Aroko hainbat elementu ikus daitezke.

Aizpel.



Alkiza egunsentian.

Baserriari bizkarra eman, maldan behera jarraitu, eta, bidegurutzera iristean, metalezko zutoin batean erakusten diren PR-Gi 78 eta SL-Gi 9 ibilbideen artean, eskuinekoa aukeratuko dugu (333 m, 5 min). Hemendik aurrera, bide-seinale zuri eta horiez gain, metalezko zutoin batean agertzen diren hontzaren eta gurutzearen irudiek lagunduko digute bide zuzena aukeratzeko.

Errepide txikitik igotzen hasi eta berehala, Areta baserriaren ondora iritsiko gara. Aurrera-

go bidegurutzea dago. Han ezkerreko bidea hartu behar dugu (361 m, 10 min).

Pista zabaletik altuera hartzen jarraituko dugu, eta, hurrengo bidegurutzera iristean, ezkerreko bidetik jarraituko dugu (475 m, 25 min). Aurrez aurre, Hernioko gailurreria, eta gertuago, Algorri, Zopite eta Belako haitzak ikusiko ditugu. Harkaitzetako biztanleen informazioa ematen duen argibide-taula atzean utzita, bide nagusitik aurrera segi eta Leteren bordaren ondora aile-

gatuko gara. Honen ondoan argibide-taula dago. Bertan basoa bizitzaren babeslekua dela irakur daiteke (627 m, 1 h 10 min).

Bide nabarmenak berehala eramango gaitu Itzuregiko bidegurutzera (683 m, 1 h 20 min). Itxuraingo parajeetara zuzentzen den bidea utzi eta Zelatungo lepora doana aukeratuko dugu. Izeidian marrazten den xendan barrena, aldats pikoak gainditu ondoren, bidea leundu egiten da. Pagadian murgildu, eta, Larrauldik datorren bidearekin bat egin ostean, Hernio-txikiren ondoan dagoen Irumugarrietako le-

pora helduko gara. Bertan Alkiza, Errezil eta Larraulgo udalerrien muga adierazten duen mugarria dago eta hortik datorkio izena (770 m, 1 h 50 min).

Basoak atzean utzita, aurrez aurre dugun belarrez tapizatutako malda biziari aurre egingo diogu, Hernioko gurutzea bistan dugularik. Denbora gutxi beharko dugu Ezkurretakoko leporako bidearen seinalea ikusteko. Zelatunera doana itzulerako utzi eta ezkerrekoa hartuko dugu (832 m, 2 h 5 min). Hernioko gailurreriarren azpitik hedatzen da xenda, kostalderainoko

bailaren eta mendien ikuspegiak gozatzeko talaia paregabea.

Kilometro pare bat bertatik ibili eta gero, Ezkurretakoko lepora iritsiko gara. Lepo honetan, Mendibai ibilbidearekin (GR 285) bat egingo dugu (939 m, 2 h 30 min). Ibilbide luze horrek Elgoibar eta Hondarribia lotzen ditu, Gipuzkoako bost ibai garrantzitsuenak (Deba, Urola, Oria, Urumea eta Bidasoa), eta hainbat mendilerro (Karakate-Irukurrutza, Izarraitz, Hernio-Gazume KBEa, Adarra eta Aiako Harria) gurutzatzen ditu, herrialdearen barnealdetik.

Balizatutako bidetik aurrera egin eta berehala, hura utzi eta, eskuinetik marrazten den xendan barrena Aizpelgo tontorrera igoko gara. Tontorra itsusitzen duen errepikagailuaren ondoan buzoia dago (1.068 m, 2 h 50 min). Gertu ikusiko dugu Hernioko tontorra. Hara joko dugu segidan. Balizatutako bidearekin bat egin, eta, Erniozaleak aterpearen ondora iristean, Gurutze Zaharra atzean laga eta tontorrera igoko gara. Talaia bikain honen panoramika zabala da oso, eta bertako orientazio mahaiak mendi, haran eta herrien izenak identifikatzen lagunduko digu (1.078 m, 3 h 10 min).



Zelatungo bordak.

ZELATUNGO ERROMERIAK

Aspalditik ospatzen dira erromeriak Hernioko magaleko Zelatungo lepoan. Gipuzkoako bihotzean kokatuta, Herniora leku askotatik igo daiteke, eta horietako batzuk Zelatungo lepoan elkartzeko dira. Abuztuaren 29an, San Joan Txiki egunean ematen zaio hasiera erromerien sasoiari, eta iraileko igande guztietan pandero eta trikitiaren soinuak dantzan jarriko du dantzarako gogoia duena. Garai batean, San Joan Txiki egunean, Iturriozko bentaren ondoko San Joan ermitan meza egin eta segidan trikitia hartu eta Zelatunera igoz ziren, eta saioa amaitzean, bordetako jabeek txapela pasatzen zuten, bertarutakoek emandako sosekin trikitalariei ordaintzeko. Ohitura aldatu egin da eta gaur egun bordetako jabeek antolatzen dituzte erromeriak.

Antonioren eta Agirretxe bordetan haiaiketako egin aurretik, herritar eta men-

dizale askok Herniorako bidea hartzen dute, eta, Erniozaleak aterpearen ondoko Gurutze Zaharrera iristean, besoetatik zintzilik dauden burdinazko uztaiak gorputzetik pasa eta tontorrerako bidea hartzen dute. Tradizioaren arabera, uztaiak gorputzetik pasatzeak, erreuma edo artrosia sendatzeko balio omen du. Koloretako zintak, gurutzeak eta zintzarriak ere ez dira falta. Erljioak aspaldi indarra galdu arren, bada oraindik holakoetan fedea edota tradizioa praktikatzeko aukera duena.

Tontorreko gurutzeetatik ikuspegi eder-raz gozatu ostean, Zelatunera jaisten da jendea aspaldiko lagun eta ezagunekin elkartu eta egun ederra pasatzeko. Arin-arin, fandango eta kalejira doinuek paraje hauetako bazter guztiak ziprizontzen dituzten bitartean, bordetan erositako txorizo ogitar-teko eta sagardoa dastatzeko aukera izango dugu.



Itxuraingo iturria.



Hernioko gurutzea(k).

□ GIDA PRAKTIKOA



Tontorra atzean utzi eta Zelatungo lepora jaitsiko gara segidan (848 m, 3 h 25 min). Tradizioa eta festa uztartzen dira leku ezagun honetan. Horregatik, herritar eta mendizale askoren topalekua izan da aspaldidanik. Bertako bordetako batean mokadu bat jan eta gero, maldan behera abiatuko gara. Galtzada zaharraren arrastoen artean, Irumugarrietako lepora itzuliko gara, eta etorritako bidetik Itzurregiko bidegurutzeraino jaitsiko gara (683 m, 4 h 10 min). Igotzeko erabili dugun bidea eskuinera utzi eta aurrera egingo dugu. Izeidia zeharkatu ostean, Hernioko gailurreriaren ikuspegi zabala izango dugu. Jaisten hasi orduko, Itxuraingo tumuluaren ondora helduko gara. Honen

ondoan, urmaela, iturri dotore bat eta trantsizio-larreak berreskuratzeko proiektuaren berri ematen duen argibide-taula (656 m, 4 h 25 min) aurkituko dugu.

Paraje eder hau atzean laga eta, Algorri mendia inguratzen duen bide zaharretik, Santa Kruz ermitaren aurrin ondora iritsiko gara (521 m, 4 h 50 min). Argibide-taulan ermitari buruzko informazioa irakurriko dugu. Begiratoki aparta honetatik atzera egin eta baliztatutako bidera itzuliko gara. Bide zabal eta nabarmenak Alkizara gerturatuko gaitu Areta baserriaren ondotik igaro eta gero. Azken maldari aurre egin eta herriko plazan izango gara (345 m, 5 h 10 min).